

---

# DATU PERTSONALEN SEGURTASUN- ARRAKALAK JAKINARAZTEA

---



**Datuak Babesteko  
Euskal Agintaritza**

**Autoridad Vasca de  
Protección de Datos**

---

## Harremanetarako

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua

01008 Vitoria – Gasteiz

☎ 945 016 230

avpd@avpd.eus

www.avpd.eus

# Ba al zenekien ...?



---

## BA AL ZENEKIEN ...

datu pertsonalak dauzkan dokumentazioa galtzea, lapurtzea edo segurua ez den kokaleku batean gordetzea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?

- ☒ Datu pertsonalak dauzkan paperezko espediente bat zaintzarik gabeko armairu batean edo mahai gainean uztea.
- ☒ Datu pertsonalak dauzkan paper-zorro bat, karpeta bat, motxila bat eta abar galtzea.

gertatu al zaizu? Zure entitatea tratamenduaren arduradun den aldetik, **JAKINARAZI**.



---

## BA AL ZENEKIEN ...

segurtasun-gorabehera batean datu pertsonalen tratamenduak tartean daudenean gorabehera hori datu pertsonalen urraketa edo arrakala bilakatzen dela?

Kasu honetan, eta salbu eta urraketa hori ukituen eskubide eta askatasunetarako arriskua izatea ezinezkoa bada, tratamenduaren arduradun den entitateak Kontrol Agintaritzari **JAKINARAZI** behar dio.

“Entitate gisa datu pertsonalen segurtasun-arrakala bat jasan baduzu, **DBEA-RI JAKINARAZI BEHAR DIOZU**”

---

## BA AL ZENEKIEN ...

datu pertsonalak dauzkan gailu bat lapurtzea edo galtzea datu pertsonalen segurtasun-arrakala izan daitekeela?

Ordenagailu eramangarri bat, USB bat edo informazio pertsonala arriskuan jar dezakeen beste gailu bat lapurtu badizute edo galdu baduzu, tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI**.



---

## BA AL ZENEKIEN ...

**datu pertsonalak baimenik gabe ahoz ezagutzera ematea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?**

Administrazio-espedienteetako, espediente medikoetako eta abarretako datu pertsonalak ukituaren adostasunik gabe ezagutzera ematea datu pertsonalen segurtasun-arrakala da; tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI.**

**datu pertsonalak dauzkan posta arrunteko gutun bat galtzea edo irekita jasotzea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?**

Gutun bat bidali duzu eta irekita jaso dute edo galdu da? posta bidezko komunikazioen sekreturako eskubidea existitzen da; sekreturako eskubide hori hausten bada, tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI.**

---

## BA AL ZENEKIEN ...

**datu pertsonalak hutsegitez bidaltzea (posta bidez edo elektronikoki) datu pertsonalen segurtasun-arrakala izan daitekeela?**

Posta elektronikoko mezu bateko fitxategi erantsietan datu pertsonalak bidaltzen direnean, neurri aproposa da datu horiek zifratzea. Hartzaileei dagokienez hutsegiterik eginez gero, fitxategi horiek ez lirateke irisgarriak izango eta ez litzateke arrakalarik egongo; hala ez bada, **JAKINARAZI.**

“Datu pertsonalen arrakalak jakinarazteko DBEAren prozedura 24X7 irekita dago”



---

## BA AL ZENEKIEN ...

**datu pertsonalen tratamenduak ukitzen dituen gorabehera tekniko bat datu pertsonalen segurtasun-arrakala izan daitekeela?**

Gorabehera tekniko bat gertatu bada, adibidez entitate batean hainbat orduz argindar-hornidura etenda egon bada, ezinezkoa izango da datu pertsonalen tratamenduetara irispidea izatea eta hori arrisku handia izan daiteke ukituentzat; hala gertatuz gero, **JAKINARAZI**.



---

## BA AL ZENEKIEN ...

**datu pertsonalak paper euskarrian behar ez den moduan desagerraraztea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?**

Adibidez, datu pertsonalak dauzkaten espedienteak paper formatuan edukiontzi batera botatzea lehenago modu seguruan suntsitu gabe. Hori gertatu bada, tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI**.

“Datu pertsonalen segurtasun-arrakala bat arian-arian jakinaraztea dago”

---

## BA AL ZENEKIEN ...

**posta elektronikoko mezu bat ezkutuko kopia (BCC) erabili gabe hartzaile bati baino gehiagori bidaltzea datu pertsonalen segurtasun-arrakala izan daitekeela?**

KONFIDENTZIALTASUNAREN urraketa izan daiteke; beraz, posta elektronikoko mezu bat hartzaile bati baino gehiagori bidaltzean, orokorrean, garrantzitsua da ezkutuko kopia erabiltzea (gainerako hartzaileen helbideak ezin dira ikusi); hala gertatzen EZ bada, tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI**.



---

## BA AL ZENEKIEN ...

**datu pertsonalak nahi gabe edo baimenik gabe argitaratzea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?**

Informazioa bahitzearekin batera, askotan datu pertsonalak ezagutzera emateko mehatxua etortzen da. Datu pertsonalak argitaratuko balira, tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI**.

**datu pertsonalak baimenik gabe aldatzea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?**

Jatorrizko informazioa aldatzen bada, eta datuen ordezipena pertsonarentzat kaltegarria izan ahal bada, OSOTASUNA ukitzen duen arrakala bat dago; kasu honetan, tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI**.

---

## BA AL ZENEKIEN ...

**zaharkitutako gailuetan hondar-datu pertsonalak uztea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?**

Datu pertsonalak dauzkaten gailu elektronikoak (mahai gaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, disko gogorrak...) baztertzen direnean, tratamenduaren eragileak gailu horietan gordetako informazioa modu seguruan ezabatu behar du; hala ez bada egiten, tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI**.

“Datu pertsonalen segurtasun-arrakala bat tratamenduaren arduradun den entitateak jakinarazi behar dio DBEAri, baina eragileak ere jakinarazi ahalko lioke; **JAKINARAZI DBEA-RI**”



---

## BA AL ZENEKIEN ...

enplegatu batek datu pertsonalak erauzteko, birbidaltzeko edo kopiatzeko sarbide-pribilegioak abusuz erabiltzea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?

Gutxieneko pribilegioen printzipioa aplikatu behar da, hau da, enplegatuak bere lana egiteko behar dituen sistema eta datuetara eta ez beste ezertara irispidea izatea; hala eta guztiz ere, datu pertsonalak beste pertsona edo antolakunde batzuen eskuetan erortzen badira justifikaziorik gabe, tratamenduaren arduradunak **JAKINARAZI** behar du.



---

## BA AL ZENEKIEN ...

datu pertsonalak hutsegitez edo aurrez pentsatutako ekintza baten bidez ezabatzea edo suntsitzea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?

Tratamendu batean datu pertsonalak eskura ez badaude, dela hutsegitez, dela nahita, tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI**.

“Tratamenduaren arduradun gisa datu pertsonalen segurtasun-arrakala bat jasan baduzu, **DBEA-RI JAKINARAZI**”

---

## BA AL ZENEKIEN ...

erabiltzaile- edo administratzaile-kontuak arriskuan jartzea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?

Kontu bat arriskuan edo kaltetuta dagoela uste da baimenik gabeko pertsonak edo sistemek kontu horretara irispidea izan dutenean; hala gertatu bada eta datu pertsonalak ukitu badira, tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI**.



---

## BA AL ZENEKIEN ...

*phising*-aren helburua dela norbaiten edo zerbaiten identitatea ordezteko informazio konfidentzialera irispidea izateko, eta hori datu pertsonalen segurtasun-arrakala bat izan daitekeela?

Iruzurrezko webgune batera eramango zaituzten fitxategi erantsiak edo loturak izan daitezke, zerbitzu edo sistema baterako sarbidea ematen duten kredentzialak lortzeko eta, hala, datu pertsonaletara irispidea izateko... gertatu al zaizu? **JAKINARAZI.**

Gogoan izan, «*non fida, han gal*».

datu pertsonalen segurtasun-arrakala batean ukitutako bermea eskuragarritasuna izanez gero hala gertatu dela datu horiek suntsitu, galdu edo zifratu direlako halako moduz non ezingo diren tratatu?

*Ransomware* motako eraso batek informazioa zifratzen du eta horrek ESKURAGARRITASUNA ukitzen du, zerbitzuek eta sistemek ezin dutelako irispiderik izan datuetara. Gertatu al zaizu? **JAKINARAZI.**

---

## BA AL ZENEKIEN ...

datu pertsonalak okerreko pertsonari lagatzea datu pertsonalen segurtasun-arrakala dela?

Informazio pertsonala interesduna ez den hartzaile bati bidaltzen bazaio, datu pertsonalen segurtasun-arrakala bat daukagu; tratamenduaren arduradun zaren aldetik, **JAKINARAZI.**

“Entitateak datu pertsonalen segurtasun-arrakalaren berri duenetik, Kontrol Agintaritzari komunikatzeko epea 72 ordu da, jaiegunak barnean direla. Segurtasun-arrakala bat komunikatzeko, jo ezazu agintaritzaren webguneko ([www.avpd.eus](http://www.avpd.eus)) 'Segurtasun-arrakalak jakinaraztea' atalera”